

7. buletina. 2011ko abendua



INMA ikerketako parte hartzaile horiek:

Aurtengo apirillean, lau urteko faseari ekin diogu. Aurreko aldietan bezala, oraingo bisitan ere, informazio ugari jasotzen ari gara:

-Airearen kalitatea eta kontsumo eta jolaserako uraren kalitatea. 2011n, bi kanpaina egin dira airearen kutsadura neurtzeko, ikerketa-eremuetako parke eta ikastetxeetan kaptadore pasiboak jarrita. Edateko ura eta igerilekuetako bainatzeko ura analizatzen jarraitzen dugu.

-Haurren garapen kognitiboaren eta psikomotorren balorazioa egiten ari gara, McCarthy eskalaren bidez.

-Haurren hazkuntza eta arnaste-funtzioaren balorazioa: neurri antropometrikoak hartu eta, espirometria eta oszilometria bana egiten dira.

Egundaino, 120 haur aztertu eta baloratu ditugu.

Gure esker ona adierazi nahi dizuegu, berriz ere, zuen partehartzeagatik.

Buletin honen bidez, ikerketan jasotako emaitza esanguratsu baten berri eman nahi dizuegu.

Gogoratuko duzuen bezala, INMA ikerketaren xedea da, ingurumeneko kutsatzaileek, garapen eta osasunean duten eragina ezagutzea. Kutsatzaileen eraginpean egoteak –jaio aurretik edota haurtzaroko lehen urteetan– eta dietak, haurren osasun eta garapenarekin lotuak daude, eta helduaroko osasunean ere erasan dezake.

Gaixotasun asko ingurumeneko hainbat gairen eraginpean egotearekin erlazionatuak daude, askotan elkarreraginean aritzen direnak, kausa-efektu erlazioa ezagutzea zailduz. Beraz, konposatu zehatz baten erasan negatiboa definitzeko, kontutan hartu behar dira harekin elkarreraginean aritu daitezkeen gainerako faktoreak ere.

Esate baterako, arraina, neuronon garapenerako funtsezko proteinen, gantz-azido poliasegabeen eta oligoelementuen iturri izanik ere, merkurioaren eta konposatu organokloratuen iturri ere izan daiteke.

Metilmerkurioa (merkurioaren forma organikoa) bereziki toxikoa da nerbio- eta giltzurrun-sistematarako eta sistema kardiobaskularerako. Metilmerkurioak, gaitasun handia du kareneko barrera eta barrera hematoentzefalikoa zeharkatzeko. Horregatik, haurdunaldian bereziki ikertzen da honen eragina, izan ere, fetuaren eta denbora gutxiko haurren neuronon garapenean asaldurak sor baititzake.

Metilmerkurioa ingurune urtarrean erutzen denez, arrainek, bizitzan zehar, merkurioa pilatzen dute beren organismoetan. Hori, batez ere, neurri handiko espezieetan gertatzen da, elikadura-katean goreneko lekuan daudenetan.

INMA proiektuan, zilbor-hestearen odoleko merkurio-mailak neurtu ditugu, eta emakumeek haurdunaldian egindako dietaren berri ere jaso dugu, galdesorta bidez.

Gure ikerketako emaitzek erakusten dute INMAko haurren %24k gainditu egiten dituela FAOk (OME) gomendatutako dosi-

mailak, eta %64k, berriz, Estatu Batuetako Ingurumen Agentziak (EPA) gomendatutakoenak. INMA ikerketako lagina, Espainia mailako handiena da, eta biztanleria orokorra ordezkatzeko adinakoa da.

Jaiotzean, odolean azaldutako merkurio-mailek, lotura garbia dute, amek, haurdunaldian, arrain handi harrapariak kontsumitu izanarekin, esate baterako, ezpata-arraina edo atungorria.

Arraina, dieta osasungarri baten funtsezko elementu izanik, gomendio batzuk zehaztu dira kalteberak diren taldeentzat (haurdun daudenak eta haurrak). Batetik, metilmerkurio-maila handia eduki dezaketen arrain kontsumoa mugatzea, eta bestetik, arrain zuria edota neurri txikiko arrain urdinen kontsumoa sustatzea (garapen neuropsikologikoari mesede egiten diotenak eta gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko balio dutenak).

Ezpata-arraina eta atungorria bezalako arrainek duten merkurio-maila handia dela eta, Elikaduraren eta Nutrizioaren Segurtasunerako Espainiako Agentziak (AESAN) dagoeneko Europako hainbat

herrialdetan indarrean dauden honako gomendio hauek eman ditu:

Arrainak	Garai ugalkorrean dauden emakumeak, haurdun daudenak, edoskitzaroan daudenak	Hiru urtetik beherako haurrak	Hiru urtetik 12ra bitarteko haurrak
Ezpata-arraina, Marrazoa, Atungorria*	Sahiestu kontsumoa	Sahiestu kontsumoa	Mugatu, 50gr/astean edo 100gr/ 2 astean
Lutxo.			

*Thunnus Thynnus (espezia handia, orohar, freskoa eta izoztua jaten da)

Gomendio horiek emateaz gain, ingurumenera merkurio-isurketak deuseztatzeko estrategiak garatu behar dira eta populazioa horien eraginpean egotea ekidin behar da, batez ere talderik kalteberenak, hots, haurdun dauden emakumeak eta ume txikiak.

INFORMAZIO GEHIAGO:
 INMAko posta elektronikoa:
gipuzkoa.inma@gmail.com
 Tel.: 943022746
 INMA proiektuaren web-orria
<http://www.infanciaymedioambiente.org/>

PROIEKTUAREN FINANTZIAZIOA:

Udalak: Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta GOIEKI; KUTXA; Ikerkuntza sanitarioko Fondoa (Zientzia eta Ikerkuntzako Ministerioa); Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

EGUBERRION, ETA URTEBERRI OPAROA IZAN DEZAZUELA!!



